



3/2020 Errege Lege Dekretuaren 216. artikulua hainbat aldaketa sartu ditu **Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuan**, barne ordenamendua Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1910/EB Zuzentarauak eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 4ko 2018/1912/EB Exekuzio Erregelamenduak xedatutakora egokitzeko. Hona hemen aldaketak:

• **Erreserbako izakinen salmenta edo kontsignako ondasunen salmentak: erregistro liburua eta 349 eredia** (BEZaren erregelamenduko 66.1.3, 66.2 eta 3, 79., 80.1.4, 80.2, eta 80.3. artikulua eta xedapen iragankor bakarra)

2018/1912/EB Exekuzio Erregelamendua zehazten du zer informazio adierazi behar den 'erreserbako izakinen' (call-off stock deitutakoen) erregistro liburuetan, ondasunak beste estatu kide batera transferitzea eta haren barruan gero entregatzea Batasunaren barruko eragiketa bakartzat hartu dadin. Informazio hori ematea **funtszko baldintza** da. Bestetik, BEZ Zuzentarauak xedatzen du ondasunak beste estatu kide batera igortzen dituen saltzaileak kontsignako ondasunen salmenten akordio baten esparruan igortzen baditu, batasun barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitortpena aurkeztu behar duela.

Horrenbestez, **2020ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin**, BEZaren Erregelamendua aldatu egin da, helburu honekin:

1º Batasun barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitortpena (**349 eredia**) aurkeztu behar dutenen artean, ondasunak beste estatu kide batera igortzen dituzten enpresaburu edo profesionalak sartzea, igorpen hori kontsignan saltzeko akordioen esparruan egiten dutenean. Horrelakoetan, datu hauek adierazi beharko dira:

- Ondasunak igortzen diren datari dagokion aitortpenaldian, horiek jaso behar dituen enpresaburu edo profesionalak zein identifikazio zenbaki duen BEZaren ondorioetarako, eta haien hasierako balio zenbatetsia zein den.
- Batasun barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuan idatzi den aitortpenaldian, ondasunen hasierako hartzailea ordeztzen duen enpresaburu edo profesionalak, ordeztzeko badago, zein identifikazio zenbaki duen BEZaren ondorioetarako.

2º Horrelako eragiketak **batasun barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuan** nola erregistratu arautzea.



a) Saltzaileak datu hauek adierazi beharko ditu:

- Ondasunak zein estatu kidetatik garraiatu diren eta noiz bidali diren.
- Ondasunak jaso behar dituen enpresaburu edo profesionalak BEZaren ondorioetarako duen identifikazio zenbakia, garraioaren helmugako estatu kideak esleitua.
- Zein estatu kidetara garraiatzen diren ondasunak, gordailuzaina hartzailea ez denean gordailuzainak zein identifikazio zenbaki duen BEZaren ondorioetarako, biltegia non dagoen eta bertara ondasunak noiz iritsiko diren.
- Biltegiara iritsi diren ondasunen balioa, deskribapena eta kantitatea.
- Ondasunen hasierako hartzailea ordeztzen duen enpresaburua BEZaren ondorioetarako identifikatzen duen zenbakia.
- Emandako ondasunen deskribapena, zerga oinarria, kantitatea eta unitateko prezioa, emate data, eta enpresaburu eskuratzailerak BEZaren ondorioetarako identifikatzen duen zenbakia.
- Kontsignako ondasunen salmenten baldintzak ez betetzeagatik transferentzia eragin duten mugitutako ondasunen deskribapena, zerga oinarria, kantitatea eta unitateko prezioa, zirkunstantziak noiz gertatu diren eta zergatik.
- Ondasunak itzuli badira, haien deskribapena, kantitatea eta balioa, eta itzulketa data.

b) Ondasunak jaso behar dituen enpresaburuak edo haren ordezkioak datu hauek adierazi beharko ditu:

- Saltzailea BEZaren ondorioetarako identifikatzen duen zenbakia.
- Haren esku jartzeko igorri diren ondasunen deskribapena eta kantitatea.
- Eskuratutako ondasunen deskribapena, zerga oinarria, kantitatea eta unitateko prezioa, eta batasun barruko eskurapenaren data.

Ondasunak gordailuan jartzeaz arduratzen bada, datu hauek ere jarri beharko ditu:

- Ondasunak noiz iritsi diren biltegiara.



- Saltzaileak biltegitik ateratzen dituen ondasunen deskribapena eta kantitatea – jada haren eskura geratzen ez direnena–, eta horiek zein egunetan ateratzen diren.

- Biltegian suntsitutako edo bertatik desagertutako ondasunen deskribapena eta kantitatea, eta zirkunstatzia hori zein egunetan gertatu edo atzeman den.

Berehalako Informazio Hornidura (BIH) aplikatzen duten enpresaburuen kasuan, **2021eko urtarrilaren 1era arte** atzeratu da, Gipuzkoako Foru Ogasuneko egoitza elektronikoen bidez, batasun barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuan kontsignako ondasunen salmentak erregistratzeko obligazioa.

- **Batasun barruko ondasun emate salbuetsiak: 349 eredua** (BEZaren Erregelamenduko 81.4 eta 81.5 art.ak)

2018/1910/EB Zuzentaruak agintzen duenez, batasun barruko eragiketak laburbiltzen dituen aitorpenean (349 ereduan) aitortzea funtsezko baldintza salbuespena aplikatu dadin.

Alde horretatik, betebeharrak hori eragiketaren datatik hurbil bete dadin, eta enpresek gutxi erabiltzen dutela aintzat hartuta, **urteko aurkezpena egiteko aukera kendu da, 2020ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.**

- **Batasun barruko garraioaren proba.** (BEZaren Erregelamenduko 13.2, 13.3 eta 13.4.1 art.ak)

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018/1912/EB Exekuzio Erregelamenduaren 45 bis artikulua **presuntzioen sistema harmonizatu bat ezartzen du, kontrako proba onartzea eragotzi gabe**, batasun barruko entregetan salbuespena aplikatzeko beharkizunen proba sinplifikatzearen.

Hortaz, ondasunak helmugako estatu kidera garraiatu izana zuzenbidean onartuta dagoen edozein frogabide erabiliz justifikatuko da, eta, bereziki, froga elementu hauetako baten bitartez:

1. Saltzaileak adierazten badu ondasunak berak edo hirugarren batek bere izenean garraiatu dituela, eta:

a) Gutxienez froga elementu hauetako **bi** bere esku daudela (saltzaileak eta eskuratzailak independenteki eginak):

- CMR agiria edo gutuna, behar bezala sinatuta
- Ontziratze agiria
- Aire garraioaren pleitaren faktura



- Garraiolariaren faktura

b) Gorago adierazitako **froga elementuetako bat** ez ezik, jarraian aipatzen direnetako **bat** ere baldin badu (saltzaileak eta eskuratzailleak independenteki eginak):

- i. Ondasunen garraioa aseguratzen duen poliza, edo aseguria ordaindu izanaren bankuko frogagiriak.
- ii. Agintari publiko batek -notario batek, esate baterako- emandako agiri ofizialak, ondasunak helmugako estatu kidera iritsi direla frogatzen dutenak.
- iii. Helmugako estatu kidean gordailuzain batek egindako jasotze-agiria, ondasunak estatu kide horretan biltegitatu direla baieztatzen duena.

2. Saltzaileak eskuratzaillearen idatzizko adierazpena badauka, ondasunak berak edo hirugarren batek bere izenean garraiatu dituela egiaztatzen duena, bertan merkantzien helmugako estatu kidea aipatuta, eta:

a) Gutxienez froga elementu hauetako bi baditu (saltzaileak eta eskuratzailleak independenteki eginak):

- CMR agiria edo gutuna, behar bezala sinatuta
- Ontziratze agiria
- Aire garraioaren pleitaren faktura
- Garraiolariaren faktura

b) Gorago adierazitako froga elementuetako **bat** ez ezik, jarraian aipatzen direnetako **bat** ere baldin badu (saltzaileak eta eskuratzailleak independenteki eginak):

- i. Ondasunen garraioa aseguratzen duen poliza, edo aseguria ordaindu izanaren bankuko frogagiriak.
- ii. Agintari publiko batek -notario batek, esate baterako- emandako agiri ofizialak, ondasunak helmugako estatu kidera iritsi direla frogatzen dutenak.
- iii. Helmugako estatu kidean gordailuzain batek egindako jasotze-agiria, ondasunak estatu kide horretan biltegitatu direla baieztatzen duena.